

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HARANeko UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2020koa. Ordaintzeko epearen hasiera**

2020ko martxoaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko egun balioudunetan (biak barne) prest egongo dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2020ko ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen Zergabilketako Arautegi Orokorren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Harana, 2020ko urtarrilaren 27a

*Alkatea*

*ROSA MARÍA IBARRONDO MANZANOS*